


Kontrol-sistemak: hautaprobak 2002 - uztaila

II-A Arrain-haztegi edo piszifaktoria batean, urtegiaren maila erregulatzeko sistema kontrolatu nahi da. Kontuan euki behar da ura berritu egin behar dela lantzean behin, horretarako punpa bat erabiliz. Emandako pausoen zergatia azalduz, zera egin behar da:

- a) Adierazi sistemaren blokeen diagrama. Bertan kokatu eta azaldu honako elementu hauek: (3 p)
- Sarrera eta irteera-seinalea.
 - Errore-seinalea.
 - Kontrol eta erregulazio-elementuak.
 - Prozesu-elementuak (azken elementuak edo jarduleak)
 - Berrelikadura-elementuak.
- b) Sistema automatiko batean, definitu hurrengo kontzeptuak : (1 p)
- Perturbazioa (1 p)
 - Berrelikadura-elementuak

Hona hemen blokeen diagrama:



Sarrera-seinalea, ur-biltegian nahi den uraren maila da. Irteera-seinalea, uraren maila erreala da. Errore-seinalea, sarrera eta irteera seinalen arteko diferentzia da, konparadoreak emanik. Kontrol-elementua amplifikadorea da. Jarduleak balbula eta ponpak dira. Berrelikadura-elementua ur-mailaren sentsore bat izango da: flotagailua...